

MUNDUARI BIRA PASTEL BATEAN

-Munduko pastelik handiena! -esan zion Eñautek gozogileari-. Horixe nahi dut nire urtebetetzerako. Eskolara, bertan inoiz jan den pastelik handiena eraman nahi dut.

Emakume jakintsua zen gozogilea. Bidaia zalea oso, hamaika herrialde ezagututakoa. Gau osoa eman zuen haur haren pastela prestatzen. Munduko pastelik handiena esan zion Eñautek; baina, nola sartu mundua pastel batean? Lapiko handi bat hartu eta jakiz betetzen hasi zen: gozoak, gaziak, gogorrak, bigunak, hangoak eta hemengoak.

Gozogilea burruntzaliari birak eta birak ematen aritu zen gau osoan, lapiko handi hartan. Egindako bidaia guztiak gogoan, bertara jatekoak botatzen ibili zen: basamortuko datilak bota zituen, tropikoko hainbat fruitu, mendi altuetako behi-esnea. Munduko kakao eta azukre plantazio handienetako landareak ere jaurti zituen, baso berdeetako marrubi, gerezi eta masustak eta zereal-zelai ederrenetako gariarekin egindako gailetak.

Gau osoa eman zuen burruntzaliari bueltaka, zazpi itsasoetatik nabigatzen zuen ontzia bailitzan. Eguzkia atera aurretik, labean sartu zuen nahasketa ikaragarri hura.

Hurrengo egunean, Eñaut gozotegira sartu zen. Harrituta geratu zen gozogileak hain pastel txikia egin zuela ikustean.

-Baina nik pastel erraldoi bat eskatu nizun!

-Eraman ezazu eskolara eta proba ezazue bakoitzak pusketa bat. Ikusiko duzue zein goxoa dagoen!

-Nik ez nuen pastel goxo bat nahi! Nik munduko pastelik handiena nahi nuen!!!

-Proba ezazu hau, Eñaut... Ez zara damutuko.

Denek barre egin zioten eskola atarian pastel txiki harekin ikusi zutenean. Eñaut lotsagorritu eta gozogileaz oroitu zen. “Emakume malapartatua!” Pentsatu zuen bere baitan. “Nik munduko pastelik handiena egiteko eskatu eta hauxe eman behar!”.

Jolas ordua iritsi eta pastela atera zuen Arantxa irakasleak. Bera ere harrituta geratu zen hain pastel txikia ikustean. Baina haurrak barrez ari zirela ohartzean ez zuen ezer esan. Eñauti negargura sartu zitzaion eta Arantxak nabaritu zion.

Bakoitzari pusketa bana eman eta ahora sartu zuten. Bainila, kakaoa, kafea eta esnegain zaporeak nabaritu zituzten ahoan, lima eta mangoa bezalako fruituen zukua eta datil, kanela eta curry zaporea

zuten gailetak karraskatu zituzten. Halako batean, lurretik jaiki eta bueltaka hasi ziren denak. Gozogileak burruntzaliarekin egin bezala, une batetik bestera, gelatik biraka zebiltzan. Arantxa irakasleak harriturik begiratzen zien.

-Baina zer ari zarete???

Bat-batean, Afrikako hegoaldean zeudela imajinatu zuten Eñautek, Sarak, Ibaik eta Mattinek. Kakao plantazio batean barrena, landare erraldoien artetik korrika jolasean hasi ziren eta haien artean *wolof*eraz hitz egiten.

Uma, Lur, Eneko eta Garazik basamortura egin zuten ihes eta datilak jaten ibili ziren palmondo baten azpian. *Amazigh* hizkuntzan aritu ziren hizketan.

Itsasoa zeharkatu eta tropiko aldera iritsi ziren Aiur, Aimar, Chloe eta Amaia. Kafe eta azukre plantazioetatik ezkutaketan jolasten ibili ziren eta mangoa edota lima bezalako fruituen zukua edan zuten zuhaitz batzuen adarretan jarrita. *Itza*’ hizkuntzaz hitz egin zuten haien artean.

Beste ozeano bat haratago, zereal-zelai eder batera heldu ziren Nerea, Gillem, Kaike eta Ibon. Gari artean saltoka aritu ziren eta inoiz dastaturiko gailetarik gozoenak hartu zituzten. *Jeju* hizkuntzan aritu ziren.

Munduko irlarik zoragarrienetako batean agertu ziren Noa, Ane, Emily eta Paul. Arroz-soro erraldoietatik ibili ziren dantzan eta sekula jandako arroz-esnerik zaporetsuena hartu zuten. *Jedek* hizkuntzan aritu ziren.

Azkenik, Xunek, Nikolek eta Anak, mendi garaietara igo, eta ardi, behi eta ahuntz-esnearekin egindako esnegaina jan zuten. Tontor haietatik, itsasoa ikusi zuten urrutian eta haien artean *euskaraz* aritu ziren.

Arantxa ikusten ari zena sinetsi ezinik zegoen.

-Baina zer ari ote da gertatzen gela honetan? Denak erotu egin al zarete???

Ikaratuta, laguntza eske abiatu zen. Eskolako Zuzendaria ere harrituta geratu zen eromen harekin. Gainontzeko irakasleak hurbiltzen hasi ziren, zalaparta hura nondik ote zetorren ikustera. Zer egin

ez zekitela, pixkanaka haurrak gelditzen hasi zirela ikusi zuten. Bakoitzak gelako txoko bat hartu eta hantxe jarri zen. Lurrean etzan eta lo geratu ziren bat-batean. Hala egon ziren tarte luze batez, zurrunga gozoan, pixkanaka esnatzen hasi ziren arte.

-Baina zer gertatu da??? Non egon gara???

Ezer gutxi oroitzen zuten gertaturikoaz; halako batean, ordea, sabeleko mina hasi zitzaaien denei, egun osoan jan eta jan aritu balira bezala. Astun atera ziren eskolatik, ia ibili ezinean. Pusketa txiki bat janda, munduari bira eman zioten denen artean.

Gozotegi aurretik pasatzean, gozogileak begiarekin keinu egin ziola ikusi zuen Eñautek. Irribarre egin zion mutikoak.

-Baina nola da posible, oso zati txikia jan dugu eta! -zioten lagunak, sabeleko betekada ulertu ezinik.

-Munduko pastelik handiena zelako!!! -erantzun zien Eñautek, gozogileak esandakoa orduan ulertuz.